Oarsoaldeko hitza

2009-10-08

# ERRENTERIA / Ipuinaren Orduaz gozatzeko aukera, gaurtik aurrera

**Udal Liburutegiak 2010eko maiatzera arte ipuin kontaketa saioak antolatu ditu haurrentzat**

ERREDAKZIOA

**2009ko ipuin kontaketak**

Ipuinaren Orduak gaur izango du ikasturteko lehen hitzordua. 18:00etatik aurrera, Ipuinez betetako maletatxoa izenburuko kontakizunarekin gozatzeko aukera izango dute 5-9 urte tarteko haurrek. 45 bat minutuko saioa izango da. Gaurtik aurrera, ostegunero izango dira ipuin kontalariak Udal Liburutegian.

Maiatzera arte iraungo du 2009/10 sasoiko Ipuinaren Orduak. Hala, ostegunero, euskaraz zein gazteleraz kontakizunak izan go dira. Beheko koadroan dago 2009a bukatu bitarterako antolatu dituzten emanaldien zerrenda.

**2009ko ipuin kontaketak**

**Urria**

Gaur. Ipuinez betetako maletatxoa.
Hilaren 15ean. Cuentos con trazos, garabatos y borrones.
Hilaren 22an. Ipuin txinatarrak.
Hilaren 29an. Cuentos chinos.

**Azaroa**

Azaroaren 5ean. Tristeak alaitzeko ipuinak.
Azaroaren 12an. Antes de irte a acostar, un cuento para soñar.
Azaroaren 19an. Kamishibai. Euskaraz.
Azaroaren 26an. A la sombra de los cuentos.

**Abendua**

Abenduaren 3an. Bihotzak epeltxeko ipuinak.
Abenduaren 10ean. Cuentos de isla sin nombre.
Abenduaren 10ean. Cuentos de isla sin nombre.
Oharra. Kontaketa guztiak 18:00etan hasiko direla gogorarazi dute. Denek, 45 bat minutu iraungo dute.